



Hilerrian jendea hasi da loreak jarri eta txukuntzen.

Kanposantuan 850 nitxo publiko daude eta gaur egunean 54 gelditzen dira hutsik

■ Panteoi publikoak ere gehienak beteta daude ■ Udalak ikusten du 2005-2006rako hilerrian ez dela lekurik izango eta erremedioa jartzekotan da ■ Aurten, 136 heriotz izan dira Hernanin.

URRIA bitartean Hernanin 136 heriotz izan dira. 2002an urte osoan 147 izan ziren eta 2001ean, 132. Kanposantua betetzen ari da eta Udalak ikusten du 2005-2006 ingururako beteko dela, eta ordu-rako erremedioa jartzekotan da. Gaur egunean 850 nitxo publiko daude, eta horietatik 53 gelditzen dira hutsik. Panteoi publikoak, berriz, 13 dira eta guztiz beteta daude,

6 izan ezik. Gorputzak nitxo eta panteoi publikoetan 10 urterako sartzen dira.

Haunditu beharra

Aurreko legegintzaldian hilerria haunditzeko proiektua atera zen, baina, Gobernu Talde berriak gelditu egin du proiektu hori. "Biabilitatea ikusi behar da eta bizilagunen kejak ere izan ditugu" esan digute Udal Gobernu

Taldetik. Hala ere, hilerria laster lekurik gabe egongo dela ikusita, gaiari helduko diotela esan digu Joxe Antonio Cuesta Zerbitzuetako Zinegotziak eta proiektu berriren bat egin beharko da hilerria haunditu edo leku gehiago egiteko behintzat.

Santu Guztien Eguna

Santu Guztien eguna bihar da eta hilerrian jende asko

ibiliko da familiako edo inguruko hildakoen oroimenez. Garai batean Hildakoen Egunean egiten zitzairen lore eskaintza hildakoei, baina, gaur egunean azaroaren aurrerenera pasa da ohitura hori. Santu Guztien eguna XIV garren mendetik datorren kristau ohitura da eta Hildakoen eguna, berriz, lehenagokoa, IXgarren mende ingurutik baitator. □

Disko festa Oialumen

DISKO festa izango da bihar, larunbata, Oialume dantza-lekuan, arratsaldeko 19:30etatik goizaldeko 05:00ak arte. Joseina Etxeberria, DJ Black eta DJ Kete izango dira disko jartzen. Igandean ere DJ festa dago. Oialumen igandero eta jai egun guztietan izaten da festa, eta datorren asteburuan Santu Guztien Eguna izaki, larunbat eta igandean izango da festa. □

Kristau Musika Jaialdia bihar

INPAKTO taldeak Kristau Musika Jaialdia antolatu du larunbaterako. Egitarauaren barruan, Euskal Praixe Cd-a aurkeztuko dute eta rock taldeak, koreografiak, rap musika eta abar izango dira. Kontzertua arratsaldeko 18:00etan da, Milagrosan, eta honako egitarau hau izango du: XQ leloaren mezua, multimedia bidez, Zona Azul koreografia, Euskal Praixe, Rap musika, Exegesis rock taldea eta Esket. Sarrera deialde da. □

Bertsolari txapelketa bihar Hernanin

GIPUZKOAKO Bertsolari txapelketako hirugarren final laurdena jokatu da bihar Hernanin. Saioa Sandiusterriko aretoan izango da, arratsaldeko 17:00etan eta honako sei bertsolari hauek kantatuko dute: Joxe Luis Urdangarin, Agin Rezola, Nahikari Gabilondo, Ekaitz Goikoetxea, Iñigo Manzisidor *Mantxi* eta Iñaki Gurrutxagak.

Saioko aurrenekoa semifinalletara pasako da zuzenean. Dagoeneko Estitxu Eizagirre hernaniarra eta Iker Zubeldia zegamarra daude klasifikatuta. Igandean, Zumaian jokatu da beste saio bat (hor ez da hernaniarririk) eta datorren igandean Andoianen jokatu da final laurdenetako azken saioa, Bastero kultur etxe berrian. Hor Aritz Zerain eta Iker Osak kantatuko dute Hernanitik, Aitor Sarriegi, Amaia Agirre, Alaitz Sarasola eta Mikel Arrillagarekin batera. □

Etxerategi kontzentrazioa deitu du gaur

ETXERAT Elkarrekin hileko azken ostiralero bezala kontzentrazioa deitu gaur, 20:00etan, plazan *Guztietan artean Presoak Euskal Herrira* lemarrekin. Etxeraten esanetan, oso pozgarria izan zen aurreko astean bi hernaniarrei egin-dako ongi etorria, baina, "gogoan izan behar da Hernaniko preso politiko guztiak Hernanitik eta Euskal Herritik kanpora daudela, Espainiako eta Europako legediek diotena bortxatzen". Etxeraten usitez, presoak Euskal Herrira ekarzteak lagundu egingo luke gatazka konpontzen. Era berean, Etxerategi aurrera jarraitzen du presoen aldeko diru bilketa kanpainarekin eta hori ere Gudarien plazan da. □

Allianz 
ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Telf.: 943 557 326
656 735 109


ADARRA
ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita kalea 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

URGASKA, S.L.
Gas instalakuntza
Material salmenta
* Asistentzia teknikoak, gas eta berogintzan.
* Gas propano, butano eta naturala: mantenua
* Iturgintza
Aristizabal 9 Behea
Tel.: 943 33 37 40

OIALUME BILTOKIA.
Igande eta jaiegunetan dantzaldia, 19,30etatik
Bihar, Larunbata: DJ Festa Joseina Etxeberria, DJ Black eta DJ Ketrekin
OIALUME BILTOKIA
Oialume auzoa
943 55 29 38

AMAIA
ARRATZ
ITSASBIAK
FRESKO ETA IZOZTUAK
Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

ANTZIOLA TABERNA
"Mus azkarra"
ostiraletan, 23:00etan
SARIAK:
1. 2 urdaiazpiko edo 12 txuleta + 2 langostino kaja + 2 txanpain bot.
2. 6 kilo kostila + 2 langostino kaja + 2 ardo botila
3. 2 koneju + 2 txanpain bot + 2 ardo bot
4. 2 txanpain botila + 2 ardo botila
INSKRIPZIOA: 12 euro bikoteko
ERREGULARITATEA: Hilabeteko puntuzorik altuena 60 euro.
ANTZIOLA TABERNA
Antziola auzoa 1 - 943 55 54 99



Gazte Txokoko gazteak 'kar'etan abiatzeko pronto, Olabarrian.

Gazte Txokoak sukaldaritza tailerra, Leizaranera martxa, eskalada eta abar antolatu ditu azarorako

GAZTE aurkeztu ditu datoren hilean egingo dituen ekitaldiak. 11-15 urteko gazteek sukaldetan ikasi, Lizaran bailarara bizikletan joan, zinea ikusi, Txuri Urdinen patinatu eta abar egiteko aukera izango dute, besteak beste. Era berean, Gazte Txokoak gazteei gogoratu arazi die beren pro-

posamenak jasotzeko gogoz dagoela.

Gaztetxoak piloto, Andres Vilariñorekin

Gazte Txokoak urrian ere egitarau oparoa izan du, baina, ekitaldirik aipagarriena Olaberriara egin da. Olaberriar Andres Vilariño piloto ezagu-

nak Kar zirkuitoa dauka eta hernaniarrek gozatu ederra hartu zuten. Karreraxo bat egin ere egin zuten, eta baita podiumean sariak banatu ere. Umeek Andres Vilariño bera ezagutu eta hitz egiteko aukera ere izan zuten. Denak oso gustora ibili ziren, eta berriz joateko gogoz etorri. □



Balantxako etxeek 100 bat urte zituzten eta bertan Ugalde eta Arzelus familiak bizi izan dira.

Balantxako etxeak atzo bota zituzten etxe berriak egiteko

BALANTXAKO bi etxeak bota zituzten atzo eguerdian, terreno horietan etxe berriak eraiki behar dituzte eta. Bota duten etxeetako batean jai zen duela 76 urte Juana Ugalde eta Kronikari adierazi dienez bere aiton-amonek egin

zuten etxe hura duela 100 bat urte. Bizitza bakarreko etxea zen eta beheko pisuan kaldereria zuten. Eraiki zenetik lau belaunaldi bizi izans dira etxe horretan. "Pena handia eman digu Balantxa botatzea" dio Juana Ugaldek.

Balantxan bota duten beste etxea beranduxeago egin zuten eta Arzelustarren familia bizi izan da bertan. Familiakoek adierazitakoaren arabera etxe horretan hiru bizitza zeuden eta ondoan aroztegi bat zuten. □

HITZ BITAN

✓ FLORIDA

Emakumeek bazkaria. Floridako emakumeak (auzoan jaiok eta gaur egunean bertan bizi direnak) bazkaritan elkartu ziren orain dela bi urte, eta aurtan ere biltzeko asmoa dute. Bazkaria azaroaren 15ean, Etxeberriko Lagun Artea elkartearen. Izena emateko, honako telefonoetara deitu, azaroaren 1a baino lehen: 943-554309 (Pili), 943-333819 (Belen), 943-552551 (Arrate).

✓ IPIUAK LIBURUTEGIAN

Liburutegia txiki gelditu zen ipuiak entzuteko. Asteazkenean ipui kontalaria izan zen Biterin, Udal Liburutegian, eta umeak kabitu ezinik ibili ziren. Lur Kortak bi saio egin zituen, ume txiki eta haundienentzako bana.



Liburutegiko aretoa lepo bete zen ipui kontalariarekin.

✓ ZINEA BITERIN

'Como Dios' gaur. Gaueko 22:30etan *Como Dios* pelikula botako dute gaur Biterin. Larunbat eta igandean, *Como Dios* ez ezik, umeentzako *Sin Chan* marrazki bizidunak botako dituzte.

✓ ESKOLA KIROLA

Asteburuan ez da eskola kirolik. Santu Guztien Eguna dela eta asteburu honetan ez dago Eskola Kirolik. □

II. URTEBETETZEA

Francisco Irazusta Goikoetxea "Polipaso"

2001eko urriaren 29an hil zen, 69 urte zituela.

Franciscoren familiakoek bere heriotzeko bigarren urteurreneko meza eskainiko diogu bihar, eta ezagutu zenuten guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu bertara etor zaitezten.

Urtebetetze meza bihar, azaroak 1, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokian.

Hernanin, 2003ko urriaren 31n.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 006666
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Aizpuru
Latsunbe Berri 11
☎ 943 336077
▶ Gaez: Aizpuru
Latsunbe Berri 11
☎ 943 336077

Hernaniko Kronikako laguntzaile izan nahi?

Urtean 30 eurogatik egunero *kronika* dohainik

Telefonoz hartuko dizkizugu datu guztiak:

☎ 943 330899 - 656 703814

Bonoa zeuk bete nahi baduzu, jaso leku hauetan: Conde (Urbietan), Zinkoenea, Iruretagoiena (Kale Nagusia), Kronika (Larramendi 11) eta Dobera (Larramendi 11)



Urrezko eztaiak
Juanito ta Pascuala
hogeita hamaikan Urrria
berrogeita hamar urte
Lezon lokarria
Ordúz gero dugu guk
zuengan jatorria,
eskerronez oihuka
omenez eztarria
ospa dezagun, bai, gaur
ezteien urria.

Kortadi'tar Pascuala eta Ayerbe'tar Juan
1953/10/31 - 2003/10/31 - ZORJONAK